



GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO
DIGITALA ETA AUTOGOBERNU
SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo

**LEGEZKOTASUN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN,
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
ARTEKO HITZARMENARI BURUZKOA: EUSKARA HUTSEZKO
HEDABIDEEN EKINTZABIDEA ZIURTATZEKO HELBURUAREKIN
(EPEALDIA 2025-2028).**

**64/2025 LT- LGAKZ
NBNC_CCO_402/25_02**

I. SARRERA.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskaera bidali dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, goiburuan aipatutako hitzarmen proiektuari buruzko legezkotasun txostena egin dezan.

Txosten eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu dira:

- ✓ Hitzarmenaren zirriborroa (lehenengo bertsioa), bai euskaraz bai gaztelaniaz.
- ✓ Euskara Sustatzeko Zuzendariaren justifikazio-memoria teknikoa.
- ✓ Zerbitzu Zuzendaritzaren aholkularitza juridikoaren txostena.
- ✓ Hitzarmenaren zirriborroa (bigarren bertsioa), bai euskaraz bai gaztelaniaz.
- ✓ Gobernu Kontseiluaren erabaki proposamena.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 7.1.c), 9. eta 13.1.b) artikuluetan xedatutakoaren arabera egiten da.

Aipatutako arau-aurreikuspenez gain, legezkotasun txostena egiteko eskumen organikoa lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren –Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE, *hemendik aurrera*) Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen– 9.1.i) artikuluan sustraitzen da; bai eta Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen uriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 14.1.a) artikulua Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari esleitutako eskumenetan ere.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T73FN-ZG4J

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: MIGUEL ANGEL HURTADO PEDROSO | 2025/07/10 09:54:21

II. LEGEZKOTASUN AZTERKETA.

1.– Aurrekariak.

Proposatutako hitzarmenak burutzen dituen koordinazio- eta lankidetza-ekintzak ez dira berriak.

Izan ere, 2019. urtean sinatu zen lankidetza-hitzarmena lehengo aldiz, euskara hutsezko hedabideen funtzionamendua bermatzeko laguntzak koordinatzeko xedearekin. Ondoren, 2022ko apirilaren 11an, bigarren aldiz sinatu zen.

Laburbilduz, sinatutako hitzarmenei esker, igarotako sei urte hauetan laguntzen deialdietan irizpide berak aplikatzea adostez gain, komunikabideen mapa zehaztu da eta laguntzak kudeatzeko leihatila bakarraren sistema ezarri da, besteak beste. Hau da, horren bitartez, hedabideak erakunde bakarrera bideratu dira, hedabideak dituen ezaugarrien arabera.

Hori dela eta, lankidetza horren emaitzak onak izanik, lau erakundeek berriro ere beste hitzarmen izapidetzea erabaki dute. Beraz, orain aztertzen ari den hitzarmena hirugarrena izango da.

2.– Xedea.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak izapidetutako espedientean barne dauden justifikazio-memoria teknikoan eta txosten juridikoan argi ikusten dira proposatutako lankidetza-hitzarmenaren oinarri faktikoak eta juridikoak; Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1982 Legearekin (*10/1982 Legea, hemendik aurrera*) lotuta daudenak, batez ere.

Bereziki, 10/1982 Legearen 5. artikulua euskal herritarrei aitortzen dizkien funtsezko bost hizkuntza eskubideen artean dago informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea. Hain zuzen ere, «*aldizkariak eta irratitelebistetak eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea*» aipatzen du.

Ildo horretatik abiatuta, eta kontuan hartuta aurreko hitzarmenetan oinarrituta jarraitutako ibilbideak argi utzi duela herri erakundeen arteko harremanak euskara hutsezko hedabideen finantzaketari begira jarritako helburuak bateratzea asko lagundu duela, berriz ere, lankidetza-hitzarmen honen xedea euskarazko hedabideen finantzazioari begira, herri erakundeen arteko lankidetza irizpideak finkatzea da.

Lankidetza-hitzarmenean bertan adierazten den Jarraipen Batzordeak herri erakundeei proposamena egingo die, bakoitzari dagokion aurrekontu orokorretan aurreikuspena egin dezan. Bereziki, herri-administrazioek honako betebeharrak izango dituzte:

- Jarraipen batzordean proposatutako diren prozedurak bideratzeko diru-ekarpena egitea, beti ere, egoki jotzen bada.

- Erakunde bakoitzari dagokion lurraldeko informazioa zabaltzen duten proiektu komunikatiboak laguntzea.
- Jarraipen Batzordeak proposatutako dirulaguntzak banatzeko irizpideak eta oinarriak betetzea.

Testuinguru honetan, azken finean onartu nahi den hitzarmenaren xedea da:

- Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmen oinarriak finkatzea da eta, era berean, EAEko euskara hutsezko hedabideen aurrerantzeko ekintzabidea ziurtatzeko alderdi desberdinek bere gain hartzen dituzten betebeharrak, diruzkoak zein baliabidezkoak arautzea.
- Horretarako, erakunde sinatzaileek diru-hornidura orokor bat adostuko dute urtero EAEko euskara hutsezko proiektu komunikatibo edo hedabideen dirulaguntzak bideratu ahal izateko, euskarria edozein dela ere.

3.– Ahalmena.

Konstituzioak eta EAEko Estatutuak Autonomia Erkidego osoko agintaritzen esku uzten dute euskararen erabilpena zabaltzeko eta araupetzeko neurriak hartzea.

Bereziki, EAEko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, 2 artikuluan ondokoa adierazten du: «*Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte*». Eta 6.3 artikuluan azpimarratzen da inor ezin izango dela hizkuntza dela-eta diskriminatu.

Funtsezko eskubide hori egiaz betetzen dela bermatzearen arestian aipatutako 10/1982 Legea onartu zen. Legeak betekizun zehatzak ezartzen dizkio Eusko Jaurlaritzari gizarte hedabideen aldetik herritarrek euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko duten eskubidea bermatu dezan (22, 23 eta 25. artikulua). Halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die administrazio publikoei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

4.– Hitzarmenaren proposamena.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak azterketa zehatza egin du hitzarmenaren izapidetzaren harira hainbat kontutan: izaera juridikoa, izapidetza, edukia eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea (*40/2015 Legea, hemendik aurrera*) betetzearen azterketa, besteak beste.

Errepikapenik ez izateko, eta edukia alde batera utzita, **hitzarmenaren izaera juridikoari** buruz baino ez dira adierazpenik egingo.

Hitzarmenaren izaera 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan jasotzen den **«administrazioen arteko hitzarmenaren» tipologiaren barne dago**. Hitzarmen horiek *«administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutakoak dira, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko»*.

Lege beraren 48.1 artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek eta unibertsitate publikoek, beren eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin izango du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea. Halaber, artikulua horren 3. idatz-zatiak aurreikusten du hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko duela, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu beharko duela, onura publikoko jarduerak egiten lagundu beharko duela eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko legeria bete beharko duela.

Administrazio publikoen arteko lankidetzari dagokionez, 40/2015 Legearen 143. eta 144. artikuluek ezartzen dute administrazioak interes orokorraren zerbitzura arituko direla lankidetzan, eta beren borondatez erabaki ahal izango dutela nola baliatu beren eskumenak, eta lankidetzaren printzipioa bete ahal izango dutela administrazio interesdunek egokien irizitako tekniken arabera. Horretarako, lankidetzaren formalizatzen den hitzarmen eta akordioetan, horiek sinatzen dituzten alderdiek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak aurreikusiko direla ezartzen da.

Azkenik, ezin da ahaztu Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretua. Dekretu horrek arautzen du hitzarmenei eta protokolo orokorrei aplikatu beharreko araubide juridikoa (XIII. kapituluko 54. artikulutik 65. artikulura). Izan ere, 54.1 artikulua honako hau ezartzen du, 40/2015 Legeak adierazitako modu berean: *«Dekretu honen ondorioetarako, eta legearekin bat etorruta, hitzarmenak dira administrazio publikoek, organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek, edo haiei loturikoek edo haien mendekoek, edo unibertsitate publikoek egin eta ondorio juridikoak dituzten akordioak, euren artean egindakoak zein zuzenbide pribatuko subjektuekin egindakoak helburu komun baterako»*.

Bestalde, izapidetzaren inguruan eta txosten juridikoan azaldutakoaren arabera, **ez dago soberan gogoraraztea Kontrol Ekonomikoko Bulegoak espedientearen kontrol ekonomiko-fiskala egin beharko duela**, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako EAEko Ekonomia Kontrolari

eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 21. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Hala, EAEko Administrazio orokorraren jardura ekonomikoa kontrol ekonomiko-fiskalaren bidez ikuskatuko da, aplikagarri zaizkion xedapenak betetzen direla bermatzeko. Kontrol mota horrek, besteak beste, eduki ekonomiko zuzena duten erabaki-proposamenen aurretiazko fiskalizazioa barne hartuko du, eta horiek onartzea Gobernu Kontseiluari dagokio (testu bateginaren 22.1.a.1 artikulua), kasu honetan gertatzen den bezala, hurrengo epigrafean arrazoitakoan oinarrituta.

Nolanahi ere, hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55. eta 57. artikuluetan xedatutakoaren arabera izapidetuko da. Horrela, Gobernu Kontseiluari bidaliko zaio, sinatzeko eta onartzeko.

Azkenik, beharrezkoak diren beste izapide batzuei dagokienez, kasu honetan ez da aplikagarria Eusko Legebiltzarrari, Gorte Nagusiei edo Senatuari jakinarazteko eskakizuna, dekretu beraren 59. artikulutik 61. artikulura jasotzen dena jarraiki.

5.– Hitzarmenaren edukia.

Azterketa formalaren ikuspegitik, proposatzen den hitzarmenak betetzen du Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 147/2017 Dekretuaren 57.3 artikulutik eratorritako izapidetze-eskakizuna. Arau horren arabera, Gobernu Kontseiluak alde aurretik onartu behar dituen hitzarmenen testua organo horren aurrean izapidetuko da, EAEko bi hizkuntza ofizialetan.

Azterketa materialari dagokionez, hitzarmenak honako atal hauek ditu: izenburua, goiburuan txertatua; hasierako hitzaurrea, esku hartzen duten lau alderdiak edo subjektu juridikoak zehazten dituen; azalpen-zatia («ADIERAZI DUTE» izeneko), non jasotzen diren oinarri juridikoak, aurrekariak eta helburuak; klausulak, 10 klausulak osatzen dutena; eta, azkenik, esku hartzen duten alderdien sinadura.

Hitzarmenaren izaera juridikoa kontuan hartuta, 40/2015 Legearen 49. artikulura jo behar da hitzarmenaren gutxieneko edukia egiaztatzeko. Xedapen horren arabera, funtsezko edukiak honako gai hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.*
- b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.*
- c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.*

- d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.
- e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeak ondoriozta daitezkeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.
- f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoari aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatu daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.
- g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.
- h) Hitzarmenaren indarra.

Horrez gain, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen (3/2022 Legea, *hemendik aurrera*) 33.4 artikulua hitzarmenaren edukia buruzko alderdi berri bat arautzen du, eta hura kudeatzeko erakunde pertsonifikatu bat ezartzeko premian proiektatzen da.

Kasu honetan ere, Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak azterketa sakona egin du hitzarmenaren edukia aldatzeko. Nolanahi ere, jarrian garatzen da edukia lotutako azterketa, 40/2015 Legearen 49. artikulua esandakoa jarraiki.

a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuek eta haien gaitasun juridikoa.

Subjektuak (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia) hasierako hitzaurrean zehazten dira zuzenean, aurretik azalpen-epigraferik gabe. Gomendatzen da subjektuak atal espezifiko batean sartzea, esaterako «BILDUTA» izenarekin.

Bestalde, aipatzen da esku hartzen duen subjektu bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.

Dena den, ez da inolako aurreikuspenik jasotzen alderdiek hitzarmena sinatzeko behar den gaitasun juridikoa elkarri aitortzeari buruz, eta hori sartzea gomendatzen da.

b) Eskumena.

Adierazten da esku hartzen duten administrazio publikoen jarduna zein eskumenetan oinarritzen den.

c) Xedea.

Hitzarmenaren xedea lehenengo klausulan ezarrita dago.

d) Subjektu bakoitzak xedea betetzeko egin beharreko jarduketak.

Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak hirugarren klausulan jasotzen dira. Oro har, administrazio publiko guztiek:

- Hitzarmenean ezarritakoa euskara hutsezko proiektu komunikatiboak (euskarria edozein dela ere) finantzatzeko lortzearren behar diren neurriak hartuko dituzte.
- Dagokien lege-proiektuan (Eusko Jaurlaritzaren kasuan) zein foru-arauen proiektuetan (foru aldundien kasuan), euskara hutsezko proiektu komunikatiboen jarduerari eusteko, euskarria edozein dela ere, beharrezkoa den aurrekontu-zuzkidura izendatuko dute. Jarduketa honen inguruan, lege-proiektu eta foru-arauen proiektu adierazten denean, zehaztu behar da **aurrekontuen arloko** lege-proiektuak eta foru-arauen proiektuak direla.

Zehazki, administrazio publiko bakoitzak bere eskumeneko lurralde-eremuan **egin beharreko jarduketak** 3 dira:

- Hitzarmen honen baitan sortuko den Jarraipen Batzordean **adostutako diru-ekarpenak egin**.
- Informazioa zabaltzen duten proiektu komunikatiboei zuzendutako dirulaguntza deialdia bideratu.
- Jarraipen Batzordean adostuko diren dirulaguntzen deialdiaren oinarriak eta irizpideak bete.

e) Subjektu bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.

Hirugarren klausulan **jasotako egin beharreko jarduketak** ikusita argi dago hitzarmena sinatzen duten 4 administrazio publikoek bere gain hartzen dituztela konpromiso ekonomikoak, hau da, diru-ekarpenak egin behar dituzte. Betebeharrak ekonomikoak hitzarmena sinatu ondoren sortuko dira. Ondorioz, **hitzarmenak eduki ekonomiko nabarmendua du**, eta puntu honetan txosten honen egilea bat dator txosten juridikoan gai horri buruz jasotzen diren adierazpenekin. Beraz, 40/2015 Legeak 49.d) artikuluan ezarritakoa bete behar du, nahitaez.

Horretarako, administrazio publiko bakoitzak hitzarmenetik eratorritako sustapen-jarduketa guztiak mantentzeko edo egiteko jartzen dituen baliabide ekonomikoak egotziko zaizkion aurrekontu-partidak adierazi beharko dira, bai eta urteka diru-ekarpenen banaketari buruzko erreferentzia ere, hitzarmenaren urte anitzeko indarraldia kontuan hartuta.

Are gehiago ikusita hitzarmenaren bosgarren klausularen edukia, non agintzen dio Eusko Jaurlaritzari zehazki sinatzaileei bermatzea Jarraipen Batzordean adostutako dirulaguntzen deialdiak bideratzeko behar duten diru-kopurua, modu honetan:

- Hitzarmena indarrean dagoen lehenengo urtean hitzarmena sinatu ondoren bi hilabeteko epean.
- Hurrengo urteetan, lehenengo hiru hilekoan, martxoan, hain zuzen.

f) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako **betebehar eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak**, eta, hala badagokio, ez betetzetik ondorioztatu daitekeen **kalte-ordaina zehazteko irizpideak**.

Zazpigarren klausulan agertzen dira. Diru-itzultzea da ondorioa.

g) **Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak.**

Zortzigarren klausulan Jarraipen Batzordeari esleitzen zaio hitzarmenaren edukia interpretatzea.

h) **Hitzarmena aldatzeko araubidea.**

Ez da zehazten. **Eduki hau nahitaez garatu behar da hitzarmenean, beraz, huts hori zuzendu egin beharko da.**

i) **Indarraldia.**

Bigarren klausulan zehazten da: lau urteko indarraldia. Aurreikuspen hori bat dator 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan ezarritako lehenengo arauarekin.

Aldi berean, aipatutako 49.h) artikulua arauak eskaintzen duen luzatzeko aukera jasotzen da. Bereziki, klausulak dio: «(...) *aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena, gehienez ere, beste lau urtez luzatzea edo azkentzea*».

Hitzarmenak kudeaketarako entitate pertsonifikatu bat izateko aukera aurreikusi beharri dagokionez, **esan daiteke kasu honetan hitzarmenaren laugarren klausulan espresuki eratzten den jarraipen-batzordea entitate pertsonifikatutzat har daitekeela** 3/2022 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

Laburbilduz, **klausula guztiak aztertuta, ondorioztatzen da hitzarmenaren edukia ez duela bere osotasunean jasotzen 40/2015 Legearen 49. artikuluan ezarritako gutxieneko edukia**. Zehazki, ikusten da ez direla jasotzen 49. artikulua d) eta g) idatz-zatietan adierazten diren gaiak.

6.– Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren edukia aztertzea.

Espedientean jasota dago hitzarmena baimentzen duen Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren zirriborroa, zeinaren eduki materiala jarraian jorratuko da. Hala ere, aldez aurretik, egokia da adieraztea proposamenari ez zaiola

erantsi sinatu nahi den hitzarmenaren testua. Hori dela eta, ulertu behar da hitzarmenaren testua bat etorriko dela espedientean ageri den hitzarmenaren bigarren bertsioarekin. Dena den, gogorarazten da Gobernu Kontseilura bidaltzen den erabaki-proposamenarekin batera hitzarmenaren kopia bat sartu beharko dela.

Aurrekoa ohartuta, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55. artikulua Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio EAEko Administrazio Orokorraren eta gainerako administrazio publikoen edo haiei lotutako edo haien mendeko nortasun juridiko propioa duten zuzenbide publikoko erakundeen arteko hitzarmenak sinatzeko eskumena.

Erabaki-proposamenaren lehenengo atalak horrela jotzen du, testu honekin:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetzak hitzarmen espezifikoa sinatzea onartzea».

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoaren izenean, Lehendakariak egingo du hitzarmenaren adostasuna adieraztea eta hitzarmenak sinatzea, salbu eta Eusko Jaurlaritzak beste agintaritzak bat berariaz ahaldunduen badi.

Arauan adierazitakoa jarraiki, erabaki-proposamenaren zirriborroak lehendakaria ez den beste agintaritzak baten berariazko baimena jasotzen du, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordeari, lankidetzak hitzarmena sinatzeko. Laburbilduz, adostasuna adierazteko eta akordioa formalizatzeko.

Bestalde, apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 65.1 artikulua ezartzen du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar direla Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubide eta betebeharrak eragiten dieten hitzarmenak. Hala ere, ulertzen da hitzarmen honek ez diela zuzenean eragiten herritarren eskubide eta betebeharrak, eta, horrekin bat etorritik, ez da beharrezkoa aldizkarian argitaratzea.

Hori guztia, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako gardentasun-betebeharrak betetzeari kalterik egin gabe. Beraz, **eskakizun zehatz horri berariazko erantzuna eman behar zaio erabaki-proposamenean, atal berri bat sartuta.**

Era berean, **Eusko Legebiltzarrerako edo Gorte Nagusientzako komunikazioaren koordinazioa gidatuko duten arauak falta dira akordio-proposamenean**, hitzarmenaren testua sinatzeko, eta beharrezkoa da hori aurreikustea.

Bukatzeko, apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 66. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, jarraipenaren eta informazioaren ondorioetarako, organo sustatzaileek Gobernu Idazkaritzaren arloko organo eskudunari bidali beharko dizkiote, Gobernu Kontseiluan izapidetzeko bertsioez gain, azkenean sinatutako testuen jatorrizkoa edo kopia konpultsatua.

7.– Beste oharrak.

Jarraian, hitzarmenaren testuan antzemandako zenbait akats zuzentzea helburu duten zenbait ohar egiten dira.

- Hitzarmenaren izenburuan EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRari dagokionez azaltzen da hemendik aurrera (hau da, hitzarmenaren eduki osoan) Eusko Jaurlaritza izenarekin agertuko dela.
Dena den, ez da hori betezen lehengo idatz-zatian, bai euskaraz, bai gaztelaniazko testuan. Eta akats bera errepikatzen da laugarren klausulan.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari dagokionez, ez dator bat kasu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz erabilitako izena. Zehazki, data, urriak 1, kasu batzuetan aipatzen da eta beste batzuetan ez.

III. ONDORIOA.

Txosten honen gorputzean egindako oharrak alde batera utzi gabe, goiburuan aipatutako hitzarmena baimentzeko Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenaren aldeko txostena ematen da, oro har, arlo horretan aplikatu beharreko ordenamendu juridikoarekin bat datorrela uste baita.

Hauxe da nire txostena, zuzenbidean hobe oinarritutako beste edozeinen menpe gelditzen dena.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.